

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

9/2021 Foru Araua, martxoaren 17koa, 2/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 2koa, baliozkotzeko dena, onesteko ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren, zerga berezien, balio erantsiaren gaineko zergaren, aseguru primen gaineko zergaren eta jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifak aldatzea

Arabako Batzar Nagusiek, 2021eko martxoaren 17an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

9/2021 Foru Araua, martxoaren 17koa, 2/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 2koa, baliozkotzeko dena, onesteko ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren, zerga berezien, balio erantsiaren gaineko zergaren, aseguru primen gaineko zergaren eta jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifak aldatzea.

HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa– 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, martxoaren 2ko 2/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onesteko ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren, zerga berezien, balio erantsiaren gaineko zergaren, aseguru primen gaineko zergaren eta jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifak aldatzea.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Batzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Batzar Nagusietako Osoko Bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Batzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipatutako Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

ARTIKULU BAKARRA. Baliozkotuta geratu da martxoaren 2ko 2/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onesteko ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren, zerga berezien, balio erantsiaren gaineko zergaren, aseguru primen gaineko zergaren eta jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifak aldatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 17a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA